

Real Society

jatorrizko testua 30. orrialdean

Elkarrizketa honetan, Phil Collins artistak *Front Line Compilation* programan, D.A.E.k (Donostiako Arte Ekinbideak) gonbidatuta, egin duen ekarpenari buruz hitz egin du, *Real Society* lanari buruz hain zuzen ere.

Donostiaren berezitasunean inspiratuta, kameraren aurrean biluztasuna azaldu nahi zuten guztientzako argazki saio ireki bat antolatu zuen Phil Collinsek.

DAE Lehendabiziko bisitaldian buruan zenuen jadanik lan berri honentzako *Real Society* izenburua. Orduan hasi zinen jendeari argazkiak egiten, hiri osoan zehar, Donostiako benetako gizartea ezagutzeko asmotan. Eta arazotxoren batean ere sartu zinen atxiloketa politikoa batean argazkiak egin nahi izan zenituenean. Zerk bultzatu zintuen Maria Cristina hotel sinbolikoan argazki saio ireki bat antolatzea?

PC Donostia oso hiri interesgarria iruditzen zait. Askorentzat hiri homogeneo bat bada ere (itsasertzeko hiri turistiko bat, belle époquekoa), nik komunitate oso ezberdinak ikusten ditut: batzuk iragankorrak (hiriaz gozatzen duten atzerritarrek) eta beste batzuk bertakoak (jubilatua zahar etxeetan, gaztetxoak alde zaharretan kalimotxo edaten). Izenburua Lasarteko taberna txiki batean bururatu zitzaizun, gogoratzaren? Ondoren, etxera bidean, mozkortuta, taxi gidari bat *Real Society* izeneko filmean parte hartzeko konbentzitu nahian ibili ginen. Hiriak azken 20 urteetan izandako hazkuntzari buruzkoa izango zen filma. Guri esan zigutenez hiria orain dela 20 urte baino hamar aldiz handiago da gaur egun, immigrazioa eta eredu ekonomikoa direla eta. Atxiloketa politikoa, ustekabea, drama komedia bilakatu zen guretzat. Egia auzoan ginen eta gau hartan itaunketarako atxilotu zituzten 20 bat pertsona itzuli ziren etxera. Nik Genet nuen buruan. Eta baita ere nola espainiar poliziaren jantziak (batez ere aurpegia estaltzen zien kapusaiak) zuen "kriminalitate" puntuak beren ekintzek zinezko eta ageriko zerbait zutela azaltzen zuten. Horretan guztian pentsatzen ari nintzela argazki-karreterik gabeko kamera batekin argazkiak egiten ari nintzen. Nonbait 547. argazkian edo, konturatu nintzen zer edo zer gaizki ari nintzela egiten.

DAE Zure lanarekin etengabe herrialde batetik bestera zbiltza. Badirudi "eremu arriskutsuak" deiturikoak landu nahi dituzula horretarako zu zeu egoeran sartuz. Leku horiek deskribatzeko modu berriak lortu nahi dituzu narrazio pertsonalaren bidez. Zein motatako istorioen bila zenbiltzan oraingo honetan?

PC Duela gutxi bi aste eman nituen Bagdaden. Hiria zein ikusezina zen egiaztatzeak harritu ninduen. Sinesgaitza bada ere Bagdaden nire bizitza osoan baino Pepsi gehiago edan nuen. Benetan. Bagdaden kanpoaldean Pepsi fabrika bat dago. Korea eta Ekialde Urruneko inportazioak ere handiak dira. Ezin banuen lekuko sentsaziorik jaso, nola eman aditzera gero zuei? Azkenean 80 bat gaztetxo bildu nituen pantailako progak egitera. Ez zen ezer berezirik gertatu, baina niretzat nahikoa. Bideo grabaketaren antolamenduaren funtsean ezkutuko indarkeria nabari da. Inperatibo bat. Itxaron. Eseri eta begiratu kamerari, mendebaldeko publiko bat imajinatu, eta itxaron. Eta niretzat, hirien ikusezintasuna da NATOko indarren jarduera militarra posible egiten duena. Hiriaren beraren elisio metonimikoak eta erregimenak (hiria bera infernuko erregimen bat da) proposizio bat osatzen dute eta zuzenean inplikatu dituzte hiritarrak, eraso baterako oinarri linguistikoa prestatuz.

Ez nekien zein etorriko ote zen Maria Cristina hoteleko argazki saiora. Maria Cristinan kokatu bagenuen, jendea bertaratzeko gai senti zedin izan zen.

DAE *Real Society* aurreko lan batetik dator, Belfasten egindako *Beautiful Boys* lanetik. Lan horretan ere biluziak ageri ziren. Zer dela eta jarraitu nahi izan duzu sail horrekin Donostian?

PC Esperimentala den zerbaitetan ari nintzen pentsatzen. Nola egon hiriko hotelik hobereneko sarreran eta nola igo gela batera. Nola erantzi arropa, solasean aritu, kopa bat ardo edan. Nola deitu sakelako telefono batera jarraibideak eskatuz. Eta horrelaxe antolatu genuen. Alde batetik, garrantzitsuagoak dira tratua eta parte hartzaileen

Iragarkietan argi azaltzen zen argazkiak mundu osoan zehar erakutsiko zirela

ekintzak argazkiak baino. Dударik gabe bereziki estimatutako gizarte bat da, aluzinazioa. Belfasten beste zerbaitetan nengoen interesatuta. Gizon gazteei leku publikoetan biluztea eskatzen nien, ondoren argazkia egiteko. Komunikabideen sentsualitatearen hipokrisia, Ipar Irlandako indarkeria deskribatzeko modua eta prentsa idatzian egiten den Ipar Irlandako gizon gazteen irudikapen gogor eta oldarkorra azpimarratzen duen karga erotikoa interesatzen zitzaidan. Ezkutatu ohi diren beste balio batzuetan pentsatu nahi nuen, leuntasunean, estimazioan, sentikortasunean, dena paisaiaren zati bezala.

DAE Beste proiektu batzuetan ere, Bagdad eta Miamin bezala, argazki saiorako deialdi ireki bat egin zenuen. Donostian berriz elementu berriak sartu zenituen: saioa moda testuinguru batean kokatu zenuen eta Maria Cristina hoteleko luxuzko suitearen glamourra gehitu. Nola eragin zuten elementu berri horiek aurretik erabilitako metodoekin konparatuz?

PC Harreman estrategia bikainak izan ziren. Eta era berean lan bihurtu ziren.

DAE *Real Society* proiektuaren pribatua eta publikoaren arteko elkarrizketa bat sortzen da; dudarik gabe, biak iraultzen saiatu zinen.

PC Lan publikoak leku pribatuetan egiteari buruzko eztabaida luzeak eduki ditugu. Euskal Herriko hotelik eskusiboena. Hotela bakarrik, berez, izar bat zen. Hiriko hotelik oneneko gela batera etortzeko gonbidapena, gonbidapen ukaezina, eta kameradun ezezagun baten aurrean biluztekoa, sekulako gonbidapen bat da, burura amets eta promesaz betetako istorio bat ekartzen diguna.

DAE Argazki saioan biluztu beharrak jende gutxi hurbilduko zela pentsarazi zigun. Baina jende asko aurkeztu zen eta gehienak biluzik paratzeko irrikan zeuden. Komunikabideek jendearen jokaeran zerikusia izan zutela uste al duzu?

PC Hori baino gehiago, nik uste komunikabideen interesa biluztasunean zetzala. Baina askotan pentsatu dut ea beste hiriren batean ezberdina izango ote zen.

DAE Oso interesgarria da nola paratzen den jendea biluzik zure kameraren aurrean (Belfast edo Belgradeko lanetan bezala). Badirudi pertsonen egoeraren gaineko kontrola dutela, bakoitza bere ikuskizunean parte hartzen egongo balitz bezala. *Real Society* proiektuan ere, modeloak erabiliz, ikuspegi edo irudi bat sortu nahi duzu.

PC Banekien argazki saioa opari gisa egituratuta zegoela, jendeari luxuzko gela bat irekiz, baina modeloen eskuzabaltasunak harritu egin ninduen. Biluzten ziren bitartean barru-barruko elkarrizketak izaten genituen, batzuetan hunkigarriak. Eguna amaitzean ez nintzen gai gertatu zenari buruz hitz egiteko. Hain barruko keinuak, bizitzaren istorioak, ihesbide elkarrizketak, fantasiazkoak, zoriontasun berrespenak,... hain ziren delikatuak niretzat ezin nituela errepikatu. Eta modeloek proiektuaren demokrazia ulertu bazuten, nik ere ulertu nuen ezezagunen adeitasuna eta azaltzeko beharrekin batera zuten ezkutatzeko beharra. Edo areago oraindik, itzulpen hizkeraren etsipena. Hoteleko suitean edateko zerbait eskaini ondoren, gela ondo erakusten zitzaie. Benetan gustatu zitzaidan gela. Bene-benetan. Ondoren, partehartzaileek aukeratzen zuten argazkia non atera. Eta nahi punturaino biluzteko aukera zuten. Gehiago interesatzen zitzaidan biluztearen samurtasuna.

DAE Hala ere, behin irudia komunikabideren batean jartzen denean, esplotazio ukitu bat hartzen du...

PC Dena *casting* publiko gisa zegoen antolatuta. Eta *casting*-ean argazkilariaren eta modeloaren arteko harremana sortu zen, guk sendotu eta handitutako harremana. Iragarkietan argi azaltzen zen argazkiak mundu osoan zehar erakutsiko zirela. Berehala iritsi zitzaigun AEBetako aldizkari batzuek argazkiak argitaratzeko nahiaren berri.

DAE Michael Foucaultek dio, *Sexualitatearen historia* liburuan, mendebaldeko gizarteak sexualitateari buruzko ezagutza indar bat sortu duela sexu esperientzia pribatuaren aitopentetan oinarrituta. *Real Society* lanak baditu sekretu bat kontatzearen elementuak, kamera aurrean aitortzearenak. Baina gogoan dudanez, argazki saioan ez zegoen ez zuzenik ezta okerrik ere.

PC Ados nago elementuenarekin: espazio erdipribatua, jarduera terapeutikoa, aitortze-aitortzaile erlazioa bezala. Baina nire ustez gure kasuan harremanak askoz ere garrantzi handiagoa zuen. Jendea barru-barrutik ateratzen zitzaion bezala azaltzen zen. *Casting*-a kaleko jendeari zuzenduta zegoenez, aitortze-pena "benetako" ni-aren eta posearen artean antolatu zen. Gorputza eta jarduera (biluztea). Aitorpen bat izango balitz, aitortzea hain hunkituta egongo litzakeela uste al duzu? Apaiza egunean berrogeita hamar aldiz maitemintzen al da? Nola egongo da okerrik ala zuzenik? ❧

Elkarrizketa hau PEIO AGUIRRE eta LEIRE VERGARA-rekin (D.A.E.ko kideak) egindakoa da. PHIL COLLINS argazkilari eta artista da. Belfasten eta Belgradon bizi da.